

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

|   |   |             |     |
|---|---|-------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA                                  | EDIZIORAKO ETA POSTPRODUKZIORAKO BEHARREZKOAK DIREN MATERIALEN ANTOLAKETA | Iraupena    | 80  |
|   |   | Berariazkoa |     |
| Kodea   | UF0813  |             |     |
| Lanbide-arloa                                       | IRUDIA ETA SOINUA   |             |     |
| Lanbide-eremua                                      | Ikus-entzunezkoen produkzioa.   |             |     |
| Profesionaltasun-ziurtagiria                        | Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa                          | Maila       | 3   |
| Prestakuntza-modulua                                | Edizioaren eta postprodukzioaren prestaketa                               | Iraupena    | 130 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Irudi-efektuen, grafismoaren eta idazkunen prestaketa                     | Iraupena    | 50  |

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0948\_3 EDIZIORAKO ETA POSTPRODUKZIORAKO BEHARREZKOAK DIREN MATERIALAK ETA EFEKTUAK PRESTATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ediziorako eta postprodukziorako beharrezkoak diren materialak aztertzea, eta eskuragarri daudela bermatzea, identifikazioa, bateragarritasuna, kalitate teknikoa bermatzeko eta/edo izan litezkeen akatsak aurkitzeko, eta ikus-entzunezko proiektuaren edizio-prozesua optimizatzeke.

EI1.1 Euskarri fisikoen (magnetikoa, optikoa edo fotosentikorra) kanpo-identifikazioa eta esku hartzen duten bitartekoena aztertzea, eta edukia eta gidoian, eskaletan edo kamera-partean zehaztutakoa bat datozen aztertzea ikus-entzunezko proiektuaren dokumentu teknikoetan.

CE1.2 Euskarri fisikoen (magnetikoa, optikoa edo fotosentikorra) trinkotzeak, pantailan denbora kodea duten ikuskaldi-kopiak, bikoizketak eta/edo formatu-bihurketak egitea.

EI1.3 Euskarri fisiko baten edukia minutatzea eta deskribatzea, eta datuak dokumentu batean jasotzea.

EI1.4 Zinten denbora-kodeak aztertzea, eta, hala dagokionean, hauek zuzentzea:

- Jarraitutasunik ezak edo etenak.
- Aldi bereko grabazioetatik datozen zintetan hutsegiteak dituzten sinkronizazioak.
- Telezineman jatorrizko keykodearekin bat etortzerik eza.

EI1.5 Programa jakin baten dokumentuetan zehaztutako irudi, audio eta material grafiko guztien eskuragarritasuna eta kalitate teknikoa aztertzea.

EI1.6 Kasu praktikoetan, baldintza teknikoak betetzen diren aztertzea inkrustazio bidez konbinatu behar diren hartualdietan, edo beste efektuen bat edo postprodukzioko tratamenduren bat eman behar zaienetan.

EI1.7 Ikus-entzunezko proiektuen kasu praktikoetan, geroko prozesuetan kontuan izan behar diren berezitasunak eta gertakariak detektatzea eta konpontzea (adibidez, denbora-kodeetako akatsak, dropak, audio-pisten asetasuna edo alderantzizkatzea, edo irudietako akats fisikoak, besteak beste).

A2: Edizio-gelan, ekipo eta sistema eragile ohikoenen konfigurazioa zehaztea eta prestatzea, eta sistema periferikoak konektatzea, sistemaren eraginkortasuna bermatuz.

EI2.1 Seinaleen eta/edo datu-fluxu digitalen banabidea konexio-panelen, matrizeen, banatzaileen, kommutadoreen edo sare informatikoen bidez.

EI2.2 Edizio ez-linealeko sistema baten konexioak eta konfigurazioa gauzatzea, eta periferiko guztiak, kanpo-gailuetatik datozen seinale-fluxuak eta urrutiko biltegitratze-sistamarako sarrera erabilgarri dauden aztertzea.

A3: Bitartekoak txertatzea edizio-sisteman, beharrezkoak diren formatu-bihurketak egitez, eta konpresio digital egokia erabiliz.

EI3.1 Bitartekoak jasotzen dituzten euskarri fisikoak zehaztasunez identifikatzea sisteman, zehaztutako protokolei jarraikiz, gero aurkitzeko aukera izateko, eta, hala dagokionean, bitartekoak eskuratzeko.

EI3.2 Hartualdiaren sistemako sarrera-parametroak doitzea (adibidez, seinale-motaren aukeraketa, konpresio-erlazioa edo laginketa-maiztasuna) produktua egiten den euskarriak eta/edo hedatze-bitartekoak eskatzen duen kalitate-estandarraren arabera, edo biltegitratze-espazioaren arabera, offline edizioaren kasuan.

EI3.3 Bideo-iturrietatik eta audio analogiko edo digitaletatik edo formatu-bihurketak egitea eskatzen duten edo eskatzen ez duten artxibo digitaletatik baliabideak edizio-sistema batera igarotzeko prozesua burutzea.

A4: Aukeratutako irudi- eta soinu-materialak edukiaren arabera antolatzea, identifikatzeko eta gero muntaketa-prozesuan erabiltzeko.

EI4.1 Sisteman sartutako grabazio edo filmaketa baten material landugabetik abiatuz:

- Baliozko hartualdi bakoitzari dagozkion zatiak aukeratzea, edukia identifikatuz eta iruzkin egokiak idatziz, edo, hala dagokionean, sistemara igorri kamera- edo gidoi-partean jasotako oharrak.
- Bideoaren zati bakoitzaren sarrera- eta irteera-puntuak markatzea, denbora-kodeen oharrak edo sarrera- eta irteera-keykodeak jasoz, gidoiak aurreikusitako iraupenaren arabera, puntu horien aurretik eta atzetik koleo bat mantenduz, gero doikuntza zehatzagoa egin ahal izateko.
- Bideoaren segmentuak sekuentzien, baliozko hartualdien eta iraupenaren arabera sailkatzea, zehaztutako irizpideen arabera, edizio-saioan erraz aurkitzeko.

EI4.2 Albi bereko erregistro bat egin duten iturrietatik datozen landugabeak denbora-lerroan sinkronizatzea.

EI4.3 Besteak beste, efektuak egiteko erabili behar diren irudi-, audio-, grafiko-segmentuak eta maskarak aukeratzea, sailkatzea eta identifikatzea.

EI4.4 Aurretiaz idazkunerarako eta grafismorako prestatutako materialak sailkatzea eta identifikatzea.

EI4.5 Gelan sortutako edo aurretiazko grabazioetako audio-materialak sailkatzea eta identifikatzea.

EI4.6 Hirugarrenek sisteman sartutako materialak sailkatzea eta identifikatzea, edizioan erabili ahal izateko, eskubideak aske ez daudenean edo erabilera-deklarazioa behar izan dezaketenean.

EI4.7 Audioaren bikoizketa-saiorako beharrezkoak diren hartualdiak euskarri jakin batean prestatzea, sailkatzea eta kopiak egitea.

EI4.8 Soberako materialak eta bazterkinak ordenatzea eta artxibatzea, gero erraz eta azkar berreskuratzeko.

## Edukiak

### 1. Edizioa

- Magnetoskopiaok: Ezaugarriak. Prestazioak. TBC. Abiadura aldakorra.
- Denbora-kodeak eta kontrol-pista.
- Bideo-seinalea:
  - Monitorizazioa.
  - Doikuntza.
  - Sinkronizazioa.
- Bideo-seinalea doitzeko eta zuzentzeko ekipoak.
- Ekipoen urruneko kontrola.
- Audioaren tratamendua: Formatu-motak.
- Akatsak detektatzea eta konpontzea.
  - Denbora-kodearen akatsa.
  - Dropak.
  - Audio-pisten asetasuna.
  - Audio-pisten alderantzizkatzea.
  - Irudiaren akats fisikoak.

### 2. Sistema analogikoen eta digitalen konfigurazioa

- Seinaleen kudeaketa eta bateragarritasuna.
- Gailu analogikoen loturak.
- Gailu digitalen loturak.
- Edizio analogikoa
  - Ebaketa-edizioa.
  - Konexioak.
  - Laneko prozedurak.
  - Soinua jartzea.
  - A/B Roll edizioa.
  - A/B Roll gelako ekipamendua.
  - Konfigurazioaren diseinua eta elementuen txertaketa

### 3. Seinaleen eta datuen fluxuaren kudeaketa

- Seinaleen eta datu digitalen fluxuen banabidea:
  - Konexio-panelak.
  - Matriseak.
  - Banagailuak.
  - Kommutadoreak.
  - Sare informatikoak.
- Editatzeko materialak:
  - Egjatzatzea.
  - Prestaketa.
  - Tratamendua.
- Bitartekoak eta materialak biltegitatzeko sistemak.

#### 4. Eragiketak edizio ez-linealeko sistemetan

- Bideoaren eta audioaren digitalizazioa:
  - Konpresioa.
  - Seinale-laginketa
  - Kodekak.
- Errendatzea:
  - Audioaren errenderra
  - Errender-interfazea.
  - Fotogramen errenderra.
  - Errenderraren formatuak.

#### 5. Materialen aukeraketa eta sailkapena

- Edizioa denbora-lerroan eraikitzea.
- Zinta nagusia.
- Konposizio bertikala. Erremintak. Prozedurak.
- Irteera-formatuak.
- Soberako materialen eta bazterkinen antolaketa eta artxiboa

|  |
|--|
| <b>C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK</b> |
|--|

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa